



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Martxel Elizalde Elizalde.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.
Txomin Hualde Elizalde

2024ko irailaren 3an, 19:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AKTA ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea, uztailaren 24koa.

2. 2023KO KONTUEN LIKIDAZIOA ETA IXTEA.

Udalbatza kontuen batzorde gisa arituz, 2023ko kontuen erakustaldi publikoan alegazioarik ez dela izan ziurtatu du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du**:

1.- 2023ko kontuen likidazioa behin betiko onartu eta ixtea.

2.- 2023ko kontuen likidazioa Nafar Gobernura bidaltzea.

3. HERRIKO OSTATUREN PLIEGUAK ONARTZEA. ENKANTEAN ATERA.

Udalbatzak azaldu du gaur egun Zubietako Herriko Ostaturaren errentatzen duten esleipendunek kontratua bertan bera utzi nahi dute eta 2024ko urriko 13arte egongo direla. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Lehiaketa publikoa egitea, Zubietako “Herriko Ostaturaren” taberna, ostaturaren eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua emateko, eta beharrezkoa den baldintza plegua onestea.

2.- Akordioa Kontratazio atarian eta Iragarki Oholean argitaratzea, 30 eguneko epea emanaz interesdunek beraien eskaintzak aurkezteko, urriaren 4a 11:00arte.

3.- Deialdia zabaltzea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

4. ZUBIETAKO HERRIKO OSTATUKO SUKALDEA BERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA. PLIEGOAK ONARTU.

Ikusirik, 178E/2023 EBAZPENA, abuztuaren 16koa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana, Nafarroako 2023-2027 NPEPEaren esparruan "Partaidetzazko toki garapenaren estrategiaren esparruan (PTGE) hautatutako eragiketen exekuzioa: sustatzaile publiko eta pribatuak" izeneko dirulaguntza ebatzi dela eta Zubietako udalak aurkeztutako proiektua onartu dela, proiektuaren obrak esleitzea eabakitzen da,

Obrak kontratatzeke espedientea, agiri hauek ditu:

- "Reforma de la cocina y adecuación de espacio común herriko etxea de Zubieta" izenburuko proiektua Laura Elizalde arkitektuak idatzia, 2024ko urtarrilean. Kontratuaren balio zenbatetsia 67.876,71 eurokoa da, BEZ gabe.
- Kontratazioaren plegu arautzailea.
- Kontu-hartzaileak 2024ko abuztuaren 30ean egindako txostena.
- Idazkariak 2024ko irailaren 28an egindako txostena.

Kontuan hartuta aurretik izapidetutako espediente bat dela. Kontratu Publikoei buruzko 2/2018Foru Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. Eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udaltzatzen honako hau, aho batez erabaki du:

1. "Reforma de la cocina y adecuación de espacio común herriko etxea de Zubieta" Laura Elizalde arkitektuak idatzitako proiektua onartzea.
2. Onestea obrak kontratatzeke espedientea eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua prozedura sinplikatuz bidez esleitzeko.
3. Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.
4. Gastuaren baimena ematea. Aldez aurretik izapidetzen den gastua eta, hala badagokio, esleipena edo sustiarazpena, dagokion ekitaldian dagokion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende egonen dira.
5. Lizitazio iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian, gonbidapenak bost enpresei bidaliz.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

5. BASO LANAK 2024-2025 ONARTU

Zubietako udalak Martin Mindeguiari ingeniariari eskatu zion 2024-2025 kanpainako baso lanen proiektua egitea. 2024ko abuztuan aurkeztu zuen eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1. 2024-2025 baso lanen proiektua onartzea.

6. HIRIGINTZA TASA ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuk gaia azaldu du: Zubietako pista eta bideen erabilera arautzen duen ordenantza 2016ko abenduaren 9an Nafarroako Aldizkari Ofizialean publikatu zen eta gaureguneratzeko beharra du. Proposatzen diren aldaketak ikusita Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- Zubietako Hirigintza tasa ordenantzaren aldaketa. Hasierako
- 2.- Aldaketak erakustaldi publikoan jartzea 30 egunez NAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

7. ESKAERAK

7.1 Patxi Mindegia Mutuberria jaunak Forestal Zubieta, S.L.enpresaren izenean, Iziarra, Errekaldeko bordako eta Arrataburuko egur lotea ikusirik, eskaintza ekonomiko berri bat aurkeztu du. Udalburuak irakurtzen du egindako eskaintza eta 3.445,18 euro (BEZ Gabe) izanik, gaia aztertu ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- Patxi Mindegia Mutuberria jaunak, Forestal Zubieta, S.L. enpresaren izenean aurkeztutako eskeintza ekonomikoa onartzea, hurrengo baldintzei lotuta:

- Ordainketa: Ehuneko ehuna ordaindu beharko du hasi aurretik.
- Fiantza: 700 euroko fiantza jarri behar da, mendiko pisten eta bideen erabilera arutzen duen ordenantzaren arabera.
- Ateratzeko bidea zehazten da: Aransolo-Amezti bidetik atera beharko du aprobetxamendua.
- Ustiatzeko epea: 6 hilabete.

- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

8.-MOZIOAK.

8.1.-Bizitza, Osasuna eta askatasuna plataformak aurkeztutako mozioa gerrateen inguruan eta herritaren eta bizitzaren kulturaren aldeko mozioa irakurri ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 3
Abstentzio 2

- 1.- Mozioa onartzea.
- 2.- Akordioa Bizitzari plataformari jakinaraztea.

8.2.-Bizitza, Osasuna eta askatasuna plataformak aurkeztutako mozioa Covid-19 aren kudeaketaren ebaluazio publikoaren inguruan irakurri ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Abstentzio 5

- 1.- Mozioa onartzea.
- 2.- Akordioa Bizitzari plataformari jakinaraztea.

9.- ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (46/2024- 60/2024 ebazpenak). Udalbatza jakinaren ganean gelditu da.

10.- Herriko gaiei buruzko informazioa.

---Ebazpena Abeltzaintza zerbitzutik Asier Sistiaga oiloak baja eta alta emanez, Iulen Burguete ahuntzak bajaran emanez, Pedro Santesteban Santesteban behiak eta ardiak baja emanez, Bautista Baleztena zaldiak bajaran emanez, ---Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Marcos Juanicorena, Camino Tellechea--- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu baimenak: Martin Legazcue Santesteban, Jose Ramon Ochandorena Goñi eta Martin Lorenzo Santesteban Loperena---Malerekako emakume tea gizonen berdintasunqari buruzko diagnostikoa eta aurrera begirako konpromisoen azalpena, Mankomunitatako derrama 1.634,64€.

Ez dago galde eskerik.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.